





FAKTURA BERRIA	FAKTURAK KONTSULTATU	SAILEN KUDEAKETA	BEZEROAK	JAILKITZAILEAREN DATUAK
 FAKTURA BERRIA	 FAKTURAK	 ZIRRIBORROAK		
 SAILAK	 BEZEROAK	 JAILKITZAILEAREN DATUAK		

FakturAraba – Aplikazioaren eskuliburua

AURKIBIDEA

1 ALDAKETEN KONTROLA	4
2 SARRERA	5
3 NOLA SARTU APLIKAZIOAN	6
3.1 Aukeratu nori egiten zaion faktura	6
4 APLIKAZIOAREN MENUA	10
5 PANTAILA NAGUSIA	12
6 JAULKITZAILEAREN DATUAK	13
7 SAILEN KUDEAKETA	15
7.1 Sail berria	15
7.2 Sailak kontsultatzea.....	16
8 BEZEROAK KUDEATZEA	18
8.1 Bezero berria	18
8.2 Bezeroak kontsultatzea.....	21
9 FAKTURA OSO EDO ERRAZTU BERRIA	23
9.1 Faktura mota.....	24
9.2 Jaulkitzailea.....	24
9.3 Bezeroa/Hartzailea	25
9.4 Fakturaren goiburua.....	26
9.5 Fakturaren datuak	29

9.6	Xehetasun lerroak.....	30
9.7	Oina	36
9.8	Formularioko botoiak.	37
10	FAKTURA ZUZENTZAILE BERRIA	43
10.1	Fakturaren goiburua.	43
11	PDF FORMATUKO FAKTURA.....	45
11.1	Saila, zenbakia eta data.....	46
11.2	Fakturaren jaulkitzailea	47
11.3	Fakturaren hartzailea	47
11.4	Faktura zuzenduak edo ordeztuak	48
11.5	Deskribapen orokorra	48
11.6	Xehetasun lerroak.....	48
11.7	Xehetasun lerroen laburpena	48
11.8	Fakturaren guztizkoak.....	48
11.9	TicketBai identifikatzailea eta QR kodea.....	49
11.10	Oina - Oharrak.....	49
12	FAKTURAK KONTSULTATZEA.....	49
13	FAKTURAK BALIOGABETZEA	53
14	I. ERANSKINA - MEZUAK.....	56

1 ALDAKETEN KONTROLA

Data	Bertsioa	Egindako aldaketari buruzko oharra
2023/12/18	1.8	54 araubide gakoa erantsi da Zergapean ez egotearen arrazoi berriak: IE eta VT. Zergapean ez egotearen arrazoiak 2tik 4ra handitu dira. Banakapenen kopurua 6tik 12ra handitu da. Fakturak kontsumo estatuko IFZrekin sortzeko aukera erantsi da. Ordez tutako zenbatekoaren eremua kendu da. Jasandako atxikipen oinarriko eremu bat erantsi da.
2025/05/22	1.9	Faktura bat baliogabetzen denean erantzun beharreko zenbait galdera sartu dira.

2 SARRERA

Arabako Foru Aldundiak Arabako pertsona edo erakundeen eskura jartzen duen aplikazioa da FakturAraba, TicketBAIren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulkitzeko.

FakturAraba aplikazioaren bidez pdf formatua, QR kodea eta TicketBAI identifikatzailea duten fakturak sor ditzakezu eta fitxategi bakoitza Foru Ogasunera bidaltzeko betebeharra bete, faktura jaulkitzen den unean bertan.

3 NOLA SARTU APLIKAZIOAN

Aplikaziora sartzean, Izenperen pantaila batera eramango zaitu. Bertan, erabiltzaileak bere burua autentifikatu behar du. Ondorengo irudian sarbide aukerak daude ikusgai. Sartzeko moduei edo horiek lortzeko erari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo Izenperen webgunera: <https://www.izenpe.eus>.



Euskadiko identifikazio elektronikoa

Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava-k zure autentifikazioa eskatzen du

Aukera ezazu hurrengo identifikazio sistema hauetatik zein erabili nahi duzun:



NAN/AIZ, pasahitza eta koordenadak
NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea



Ziurtagiri digitalak

[BakQ nola eskatu?](#)

Ezeztatu

Aukera bakoitza autentifikazio metodo bati dagokio.

- **BAKQ:** NANaren eta pasahitzaren bidez identifikatzeko metodoa.
- **Ziurtagiri digitalak:** Metodo hau erabiltzeko, ziurtagiri elektronikoa bat eduki behar duzu.

3.1 Aukeratu nori egiten zaion faktura

Nor sar daiteke FakturArabara?

- fakturen jaulkitzailea bera
- 2d mailako borondatezko ordezkari bat, jaulkitzailearen izenean jardungo duena
- edo gestoria baten edo hirugarren baten izenean jarduten duen baimenduna, hau da, jaulkitzailearen borondatezko ordezkaria

Behin FakturAraba aplikazioan sartuta, konektatutako pertsonaren identifikazioa ikusiko duzu goiburuan. Pantaila honetan aukeratu beharko duzu nori egiten zaion faktura.

1. Fakturak zure izenean egin nahi badituzu, adierazi egin beharko duzu "NIRETZAT" aukera sakatuz




The screenshot shows the FakturAraba application interface. At the top right, there are links for "Harremanetan jarri", "Laguntza", and language options "ES" and "EU". Below this is a header bar with the user's name "MIREN AYALA" and a "Saioa amaitu" button. The main heading is "FakturAraba". Below the heading, there is a descriptive paragraph: "FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko." Below this, it says "Hasi aurretik, informazio gehiago behar dugu". A question "Norentzat egiten ari zara izapidea?" is followed by three selection cards: "NIRETZAT CIUDADANO TICKETBAI UNO - 11111111H" (highlighted with a red border), "BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza)", and "BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena)".

2. Borondatezko ordezkari gisa jardun nahi baduzu, faktura beste pertsona batentzat eginez, adierazi egin beharko duzu "BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza)" aukera sakatuz



The screenshot shows the FakturAraba application interface. At the top right, there are links for "Harremanetan jarri", "Laguntza", and language options "ES" and "EU". Below this is a header bar with the user's name "MIREN AYALA" and a "Saioa amaitu" button. The main heading is "FakturAraba". Below the heading, there is a descriptive paragraph: "FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko." Below this, it says "Hasi aurretik, informazio gehiago behar dugu". A question "Norentzat egiten ari zara izapidea?" is followed by three selection cards: "NIRETZAT CIUDADANO TICKETBAI UNO - 11111111H", "BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza)" (highlighted with a red border), and "BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena)".

Ondoren, pantaila bat agertuko zaizu non ordezkatu nahi duzun pertsonaren IFZ idatzi behar baituzu:

 FakturAraba Harremanetan jarri Laguntza ES EU

Saioa amaitu

FakturAraba

FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.

Izapidea egingo duzu, honela: **BESTE PERTSONA BATENTZAT**

Adierazi, mesedez, **ordezkatuaren** NANA/IFZa:


Ordezkatuaren NANA/IFZa *

Ordezkatuaren NANA/IFZa

Sartu marrarik eta punturik gabe. Adibidez: 7251677F

< Itzuli Jarraitu >

Ordezkatuaren NAN/IFZ sartu beharko duzu, eta Jarraitu botoia sakatzean, 2d mailako borondatezko ordezkaria zaren egiaztatuko da. Ordezkaritza baliozkoa bada, baieztapen pantaila bat agertuko da ordezkaturako erabiltzailearen informazioarekin, eta, berresteko, sakatu Jarraitu.

 FakturAraba Harremanetan jarri Laguntza ES EU

MIREN AYALA Saioa amaitu

FakturAraba

FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.

Izapidea egingo duzu, honela: **hau ORDEZKATZEN:**

IZEN, ABIZENAK - XXXXXXXXX

< Itzuli Jarraitu >

(Borondatezko ordezkari buruzko informazioa:
<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/borondatezko-ordezkaritza>)

3. Gestoria edo hirugarren bateko baimendu gisa jardun nahi izanez gero, adierazi egin beharko duzu "BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena)" aukera sakatuz.

FakturAraba


FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.

Hasi aurretik, informazio gehiago behar dugu

Norentzat egiten ari zara izapidea?

 NIRETZAT CIUDADANO TICKETBAI UNO - 11111111H	 BESTE PERTSONA BATENTZAT (Borondatezko Ordezkaritza)	 BAIMENDU GISA (Gestoria edo hirugarren batena)
---	--	--

Pantaila bat agertuko da baimena eman dizun ordezkariaren eta ordezkaturako pertsonaren NAN/IFZak sartzeko:

 FakturAraba

MIREN AYALA Saioa amaitu

FakturAraba

FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.

Izapidea egingo duzu, honela: **BAIMENDU GISA**

Adierazi, mesedez, ordezkariaren NANa/IFZa:	Adierazi, mesedez, ordezkatuaren NANa/IFZa:
<input type="text"/>	<input type="text"/>

< Itzuli

Datu horiek sartu eta Jarraitu botoia sakatu beharko duzu. Konektaturako erabiltzailea adierazitako ordezkariak baimendu duen egiaztatuko da, bai eta ordezkariak ordezkatuaren gaineko 2d mailako borondatezko ordezkaria den ere.

Egiaztapen hori egin ondoren, ordezkariaren eta ordezkatuaren datuak dituen baieztapen pantaila agertuko da.

FakturAraba

FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.

Izapidea egingo duzu, honela: **honek BAIMENDUTA:**

IZEN - ABIZENAK - XXXXXXXX


hau **ORDEZKATZEN:**

IZEN, ABIZEBAK 2 - YYYYYYYY

< Itzuli

Jarraitu >

Berretsi ondoren, aplikazioaren pantaila nagusira joaten da.




The screenshot shows the FakturAraba application interface. At the top, there is a header with the FakturAraba logo on the left and user information on the right: "MIREN AYALA" and "Saioa amaitu". Below the header, there is a navigation bar with five menu items: "FAKTURA BERRIA", "FAKTURAK KONTSULTATU", "SAILEN KUDEAKETA", "BEZEROAK", and "JULKITZAILEAREN DATUAK". The "FAKTURA BERRIA" and "Amaitu aurkezpena" buttons are highlighted with red boxes. Below the navigation bar, there is a grid of six large buttons with icons and text: "FAKTURA BERRIA" (document with plus icon), "FAKTURAK" (document with arrow icon), "ZIRIBORROAK" (stack of documents icon), "SAILAK" (barcode icon), "BEZEROAK" (group of people icon), and "JULKITZAILEAREN DATUAK" (group of people icon).

Aplikazioaren goiburuan, konektatutako erabiltzailea borrontezko ordezkari edo baimendu gisa ari bada, informazio hori agertuko da.

Amaitu ordezkari edo Amaitu estekaren bidez, hasierako pantailara itzuliko zara, eta berriro aukeratu ahal izango duzu nori egiten zaion faktura.

4 APLIKAZIOAREN MENUA

Aplikazioaren menuan aukera hauek dituzu:



- **Faktura berria**

Faktura bati alta emateko balio du.

- **Fakturak kontsultatu**

Aukera honetan, gorde edo bidali diren jaulkitzailearen fakturak kontsulta ditzakezu.

- **Sailen kudeaketa**

Pantaila honetan, jaulkitzailearen fakturen sailak kudea ditzakezu: kontsultatu egin ditzakezu, aktibatuta dauden ala ez egiaztatu, eta sailei alta eman.

- **Bezeroak**


Pantaila honetan, jaulkitzailearen bezeroak kudea ditzakezu: kontsultatu egin ditzakezu eta bezeroei alta eman.

- **Jaulkitzailearen datuak**

Pantaila honetan, jaulkitzailearen datu pertsonalak idatz ditzakezu, bai eta logo bat konfiguratu eta oin bat gehitu ere, faktura guztietan ager daitezen.

5 PANTAILA NAGUSIA

Pantaila nagusia hauetan banatzen da:



- **Faktura berria**

Aukera honen gainean sakatuz gero, fakturei alta emateko pantailara joango zara.

- **Fakturak**

Aukera honen gainean sakatuz gero, fakturak kontsultatzeko pantailara joango zara.

- **Zirriborroak**

Aukera honen gainean sakatuz gero, fakturak kontsultatzeko pantailara joango zara, baina *Zirriborrea* iragazkia aplikatuta.

- **Sailak**

Aukera honen gainean sakatuz gero, jaulkitzailearen sailak bistaratuko dira.

- **Bezeroak**

Aukera honen gainean sakatuz gero, jaulkitzailearen bezeroak bistaratuko dira.

- **Jaulkitzailearen datuak**

Aukera honen gainean sakatuz gero, jaulkitzailearen datuak bistaratuko dira.

6 JAULKITZAILEAREN DATUAK

Pantaila honetan, fakturen jaulkitzailearen datuak kontsulta eta alda daitezke.

Jaulkitzailearen datuetara sartu bezain laster, aurretik gordetako informazioa bistaratzen da, edo soilik identifikazio zenbakia eta izen-abizenak/sozietatearen izena, ez badago informaziorik gordeta.

Jaulkitzailearen datuak


Identifikazio mota IFZ	IFZ 1E	
Izena MARIA	Lehenengo abizena	Bigarren abizena
Helbidea * Samaniego 14		
Posta kodea * 01001	Udalerria Vitoria-Gasteiz	Probintzia Alava
1. telefonoa	2. telefonoa	Emaila
Faktura oina		
Logotipoa (Gehieneko tamaina: 1 MB)		

Gorde

Hauek dira bistaratzen diren eta aldatu ezin dituzun datuak:

- **Identifikazio mota:** FakturArabaren kudeaketak egiteko erabili den jaulkitzailearen identifikazio mota.
- **IFZ:** FakturArabaren kudeaketak egiteko erabili den jaulkitzailearen identifikazio zenbakia.
- **Izen-abizenak/Sozietatearen izena:** Pertsona fisikoaren izen-abizenak edo pertsona juridikoaren sozietatearen izena.

Jaulkitzaileak izena/sozietatearen izena aldatu badu eta hala agertzen bada ziurtagirian, eguneratu egin behar duzu pantaila honetan, hori egiten duzun unetik aurrera fakturek izen berria izan dezaten.

Horretarako, izena/sozietatearen izenaren ondoan agertzen den botoia  sakatu behar duzu, eta, ondoren, *Gorde* sakatu.

Hauek dira jaulkitzaileari buruz alda ditzakezun datuak:

- **Helbidea** (nahitaezkoa): Jaulkitzailearen helbidea, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Faktura bat sortzen duzunean, datu hau alda dezakezu soilik faktura horretan. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
- **Posta kodea** (nahitaezkoa): Jaulkitzailearen posta kodea, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Faktura bat sortzen duzunean, datu hau alda dezakezu soilik faktura horretan. Eremuaren gehieneko tamaina 5 karaktere dira.
- **Udalerrria** (aukerakoa): Jaulkitzailearen udalerrria, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Faktura bat sortzen duzunean, datu hau alda dezakezu soilik faktura horretan. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
- **Probintzia** (aukerakoa): Jaulkitzailearen probintzia, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi nahi duzun moduan. Faktura bat sortzen duzunean, datu hau alda dezakezu soilik faktura horretan. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
- **1. telefonoa** (aukerakoa): Jaulkitzailearen telefono nagusia. Datu hau ez da agertuko sortzen dituzun fakturretan. Eremuaren gehieneko tamaina 12 karaktere dira. Dituak eta + karakterea atzerriko telefonoei bakarrik jar dakizkieke.
- **2. telefonoa** (aukerakoa): Jaulkitzailearen bigarren telefonoa. Datu hau ez da agertuko sortzen dituzun fakturretan. Eremuaren gehieneko tamaina 12 karaktere dira. Dituak eta + karakterea atzerriko telefonoei bakarrik jar dakizkieke.
- **Emaila** (aukerakoa): Jaulkitzailearen posta elektronikoa. Datu hau ez da agertuko sortzen dituzun fakturretan, baina nahitaezkoa da sortutako faktura posta elektronikoz bidaltzeko.

aukera agertzea nahi baduzu. Datu hau ez badago, ez duzu aukera hori izango. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira. Email formatua izan behar du.

- **Faktura oina** (aukerakoa): Fakturen oinean agertu beharreko informazioa. Faktura bat sortzen duzunean, datu hau alda dezakezu soilik faktura horretan. Eremuaren gehieneko tamaina 500 karaktere dira.
- **Logotipoa** (aukerakoa): Jaulkitzailearen logotipoa, sortzen dituzun fakturetan goialdeko ezker aldean ikusiko dena. Artxiboak irudi formatua izan behar du, eta gehieneko tamaina 1Mb da.



Ikonoaren gainean sakatu behar duzu, fitxategien arakatzailan irudia aukeratu eta kargatzeko.

PDF fakturaren logotipoaren gutxi gorabeherako tamaina aukeratu behar da lau aukera hauen artean:

- 85px * 75px
- 90px * 70px.
- 150px * 75px
- 180px * 60px
- 180px * 75px

Gorde

Eremu horiek bete ondoren, *Gorde* botoiaren gainean sakatu behar duzu, informazioa beti eskuragarri egon dadin.

✓ FakturArabarako jaulkitzailearen datuak egoki eguneratu dira Emandako informazioa hurrengo fakturetan agertuko da ×

Egindako aldaketen ondoren sortzen dituzun fakturen altan bistaratuko dira gordetako datuak. Aurretik sortutako fakturek une horretan zituzten jaulkitzailearen datuak kargatuko dituzte. Alabaina, logotipoa aldatzeak faktura berriei eta aurretik egindakoei (zirriborro fakturak edo bidalitako fakturak) eragiten die.

7 SAILEN KUDEAKETA

Pantaila honetan, dauden faktura sailak kontsulta ditzakezu, eta sailei alta eman.

Sailen kudeaketan sartu bezain laster, botoi bat (*Sail berria*) aurkituko duzu, sailei alta emateko, bai eta jaulkitzailearentzat alta emanda dauden sailen zerrenda ere.

7.1 Sail berria

+ Sail berria

Sail berria botoiaren gainean sakatuz gero, pantaila hau ikusiko duzu:

Sail berria

Sailaren izena * Zuzentzailea da



Deskribapena *

Gorde

Utzi

Pantaila honetan, alta eman diezaiekezu sailei. Hau da osatu beharreko informazioa:

- **Sailaren izena** (nahitaezkoa): Alta emango zaion sailaren izena. **Sail izen guztiek DFA_ izan behar dute hasieran** (ez ahaztu beheko marratxoa) eta ezin dituzte karaktere hauek izan: ! # \$ % & ' () * + , ; = ? @ []. Eremuaren gehieneko tamaina 20 karaktere dira.
- **Deskribapena** (nahitaezkoa): Alta emango zaion sailaren deskribapena. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
- **Zuzentzailea da**: Eremu hori markatzeko, kontuan hartu behar duzu saila faktura zuzentzaileak egiteko den ala ez.

Formularioa bete ondoren, *Gorde* botoiaren gainean sakatu behar duzu. Akatsen bat badago, dagokion pantailan agertuko da. Formularioa zuzena bada, honako pantaila honetara eramango zaitu aplikazioak: *Sailen kudeaketa*.

7.2 Sailak kontsultatzea

Sailen kudeaketa

Idatzi bilatu nahi duzun testua



+ Sail berria

IZENA	DESKRIBAPENA	ZUZENTZAILEA DA?	EGOERA	
DFA_SERIEIZENPEI	IZENPE I	Ez	Aktibaturik	
DFA_2022	Serie año 2022	Ez	Aktibaturik	

1-2 2(e)rik



Zerrendan sailaren izena eta deskribapena agertzen dira, baita zuzentzailea den ala ez, bai eta zer egoeratan dagoen ere.

Sail bakoitzean, honako hauek egin ditzakezu:



Botoi hau sakatuz gero, deskribapena eta egoera alda ditzakezu, eta saila zuzentzailea den ala ez markatu. Saila bidalita edo zirriborroan dagoen fakturaren batean erabili ez bada soilik alda daiteke azken balio hori.

Bistaratzen den pantaila altarenaren antzekoa da, baina sailaren egoera aldatzeko aukera ematen du:

FAKTURA BERRIA	FAKTURAK KONTSULTATU	SAILEN KUDEAKETA	BEZEROAK	JAUKITZAILEAREN DATUAK
----------------	----------------------	------------------	----------	------------------------

Editatu saila

Sailaren izena DFA_2022	Deskribapena * Serie año 2022	Egoera Aktibatuta	<input type="checkbox"/> Zuzentzailea da
----------------------------	----------------------------------	----------------------	--

[Gorde](#) [Utzi](#)

Fakturen alta egitean, *Aktibatuta* egoeran dagoen sail bat aukeratu ahal izango duzu; *Desaktibatuta* egoeran daudenak, ordea, ezingo dituzu fakturak sortzeko aukeratu.

Aukeratutako saila ezabatzen du. Fakturretan erabili ez diren sailak bakarrik ezaba daitezke.



Taulari dagokionez, honako hauek egin ditzakezu:

Idatzi bilatu nahi duzun testua

Zerrenda iragazi dezakezu, *Idatzi bilatu nahi duzun testua* eremuan idatzitakoaren arabera. *Sailaren izena* eta *Deskribapena* zutabeei aplikatzen zaie iragazkia.

Iragazki horrek automatikoki funtzionatzen du, eta osatu ahala iragazten dira sailak.

IZENA ^

Erregistroak alfabetikoki ordenatu daitezke, gorantz edo beherantz, taularen goiburuan, izenaren ondoan sakatuz.

1-11(e)tik



Ikur honek zerrendako orrien artean mugitzeko aukera ematen du.

8 BEZEROAK KUDEATZEA

Pantaila honetan jaulkitzailearen bezeroak kontsulta daitezke, eta bezeroei alta eman.

Bezeroen kudeaketan sartu bezain laster, bezeroak gehitzeko botoia eta jaulkitzailearentzat alta emanda dauden bezeroen zerrenda bistaratzen dira.

8.1 Bezero berria

Bezero berria botoiaren gainean sakatuz gero, pantaila hau ikusiko duzu:

Bezero berria

Identifikazio mota *

Pasaportea



Zenbakia *

Herrialdearen kodea *



Izen-abizenak Sozietatearen izena

Izena *

Lehenengo abizena *

Bigarren abizena

Helbidea *

Posta kodea *

Udalerrria

Probintzia

Emaila



Gorde

Utzi

Pantaila honetan, alta eman diezaiekezu bezeroei. Hau da osatu beharreko informazioa:

- **Identifikazio mota** (nahitaezkoa): Bezeroaren identifikazio motari buruzko informazioa (IFZ, pasaportea...). Hautatutako aukeraren arabera, informazio gehiago eskatuko dizu aplikazioak.
- **Zenbakia** (nahitaezkoa): Bezeroaren identifikazio zenbakia. Eremuaren gehieneko tamaina hautatutako identifikazio motaren arabera da.

- *IFZ identifikazioa*: Gehieneko tamaina 9 karaktere dira. Zenbakiak formatu egokia duela baliozkotzen da.
 - *BEZ-IFZ identifikazioa*: Gehieneko tamaina herrialdeari dagokiona da. Zenbakiak formatu egokia duela baliozkotzen da.
 - *Beste identifikazio mota batzuk*: Gehieneko tamaina 24 karaktere dira. Identifikazio motari dagokion herrialdea idatzi behar da.
- **Herrialdearen kodea** (nahitaezkoa/aukerakoa): Identifikazio zenbakia zein herrialderi dagokion, haren kodea idatzi behar da. Eremu hau IFZ eta BEZ-IFZ ez diren identifikazio motetan baino ez da bistaritzen eta kasu horietan da nahitaezkoa.
 - **Izen-abizenak/Sozietatearen izena** (nahitaezkoa): Pertsona fisikoaren izen-abizenak edo pertsona juridikoaren sozietatearen izena. Identifikazio zenbakiarekin ezin bada pertsona mota zehaztu, bezeroaren altan adierazi behar da. Eremu posibleen tamaina honako hau da:
 - Izena: 40 karaktere
 - Lehenengo abizena: 40 karaktere
 - Bigarren abizena: 40 karaktere
 - Sozietatearen izena: 120 karaktere
 - **Helbidea** (nahitaezkoa): Bezeroaren helbidea, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
 - **Posta kodea** (nahitaezkoa): Bezeroaren posta kodea, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Eremuaren gehieneko tamaina 20 karaktere dira.
 - **Udalerria** (aukerakoa): Bezeroaren udalerria, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
 - **Probintzia** (aukerakoa): Bezeroaren probintzia, sortzen dituzun fakturretan bistaratzea nahi duzun moduan. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira.
 - **Emaila** (aukerakoa): Bezeroaren posta elektronikoa. Bezeroari faktura posta elektronikoz bidaltzeko erabiltzen da. Eremuaren gehieneko tamaina 100 karaktere dira. Email formatua izan behar du.

Gorde

Formularioa bete ondoren, *Gorde* botoiaren gainean sakatu behar duzu. Akatsen bat badago, dagokion pantailan agertuko da. Formularioa zuzena bada, honako pantaila honetara eramango zaitu aplikazioak: *Bezeroak*.

8.1.1 Identifikazio motak

Hainbat identifikazio mota daude (IFZ, BEZ-IFZ, pasaportea eta beste mota batzuk), eta horien artean aukeratu behar duzu. Hasiera batean, IFZ agertuko da aukeratuta.

Identifikazio mota *

IFZ

8.1.1.1 IFZ

Eremua 9 karaktererekin bete ondoren, IFZ formalki zuzena den egiaztatuko du aplikazioak (adibidez, IFZren letra egiaztatuko du, pertsona fisikoen eta juridikoen kasuan).

Formatua okerra bada, honako mezua hau agertuko da *Gorde* botoiaren gainean sakatu ondoren:

! IFZren formatua okerra da x

IFZ formalki zuzena bada eta pertsona fisiko bati badagokio, *Izena*, *Lehenengo abizena* eta *Bigarren abizena* eremuak egongo dira gaituta:

Identifikazio mota *	Zenbakia *	
IFZ	11111111	
Izena *	Lehenengo abizena *	Bigarren abizena

IFZ pertsona juridiko edo erakunde batena bada, berriz, *Sozietatearen izena* eremua aldatzeko aukera ematen du.

Identifikazio mota *	Zenbakia *
IFZ	H86291424
Sozietatearen izena *	

8.1.1.2 BEZaren IFZ, pasaportearen, egoitza duen herrialdeak emandako agiri ofiziala, egoitza egiaztatzea edo beste dokumentu bat.

Identifikazio mota hauetan berdin jokatu behar duzu: Izen-abizenen edo sozietatearen izenaren eta herrialdearen kodearen artean aukeratu behar duzu (BEZ-IFZ identifikazio motarako izan ezik, ez baita beharrezkoa).

BEZaren IFZ identifikazio motaren kasuan:

Identifikazio mota *
BEZaren IFZ Zenbakia *

Izen-abizenak Sozietatearen izena

Izena * Lehenengo abizena * Bigarren abizena

Eta gainerakoetan:

Identifikazio mota *
Pasaportea Zenbakia * Herrialdearen kodea *

Izen-abizenak Sozietatearen izena

Izena * Lehenengo abizena * Bigarren abizena

8.2 Bezeroak kontsultatzea

Bezeroak


Idatzi bilatu nahi duzun testua 🔍 + Bezero berria

IFZ/IDENTIFIKAZIOA	IZENA/SOZIETATEAREN IZENA	HELBIDEA	✎ 🗑
mmmmH	x x, x	x	

1-11(e)tik |< < > >|

Zerrendan, bezeroaren identifikazio zenbakia (mota, identifikazio zenbakia eta herrialdea), abizenak eta izena/sozietatearen izena, eta helbidea agertzen dira.

Bezero bakoitzean, honako hauek egin ditzakezu:

 Izen-abizenak eta sozietatearen izena, helbidea, posta kodea, udalerrria eta probintzia alda ditzakezu.

Bistaratzen den pantaila altarenaren antzekoa da, baina ez du identifikazio mota eta zenbakia aldatzeko aukerarik ematen. Hona hemen pertsona fisiko baten IFZren pantaila irudia:



Bezeroa editatu

Identifikazio mota IFZ	Zenbakia 11111111	
Izena *	Lehenengo abizena *	Bigarren abizena
X	X	X
Helbidea *	X	
Posta kodea *	Udalerria	Probintzia
X	X	X
Emaila		

Gorde

Utzi



Hautatutako bezeroa ezabatzen du. Fakturretan erabili ez diren bezeroak bakarrik ezaba daitezke.

Taulari dagokionez, honako hauek egin ditzakezu:

Idatzi bilatu nahi duzun testua



Zerrenda iragazi dezakezu, *Idatzi bilatu nahi duzun testua* eremuan idatzitakoaren arabera. *IFZ/Identifikazioa* eta *Izena/Sozietatearen izena* zutabeei aplikatzen zaie iragazkia.

Iragazkiak automatikoki funtzionatzen du, eta osatu ahala iragazten ditu bezeroak.

IFZ/IDENTIFIKAZIOA ^

Erregistroak alfabetikoki ordenatu daitezke, gorantz edo beherantz, taularen goiburuan, izenaren ondoan sakatuz.


1-11(e)tik



Ikur honek zerrendako orrien artean mugitzeko aukera ematen du.


9 FAKTURA OSO EDO ERRAZTU BERRIA

Faktura bati alta emateko, *Faktura berria* menuaren gainean sakatu behar duzu.



OHARRA: Behin faktura bidalita, faktura horretatik abiatuta jaulki daitezke hurrengo fakturak *Fakturak kontsultatu* ataletik → Hautatu faktura kopiatzeko aukera. Menuko aukerak bistartzeko,

hiru puntu bertikalen irudiaren gainean sakatu behar duzu.



Alta formularioaren barruan, atal hauek daude: *Faktura mota*, *Julkitzailea*, *Bezeroa*, *Fakturaren goiburua*, *Xehetasun erroak* eta *Oina*. Atal bakoitzaren izenburuaren gainean sakatuz zabaltzen eta ixten dira atalak. Hasiera batean, menua zabalik egongo da, eta, beraz, osorik bistaratuko da faktura berriaren formularioa:

Faktura mota ^

Osoa Erraztua

Faktura zuzentzailea bada, markatu

Menua itxita:

Faktura mota	▼
Jaulkitzailea	▼



Gainera, formularioa bete bitartean, edozein unetan gorde dezakezu fakturaren zirriborroa, botoi honen gainean sakatuz.

9.1 Faktura mota

Atal honetan, bidaliko duzun dokumentua faktura osoa edo erraztua den aukeratu behar duzu. Hasiera batean, *Osoa* aukera egongo da markatuta.

Gainera, alta eman beharreko faktura zuzentzailea dela marka dezakezu. Hala eginez gero, fakturaren goiburuan eskatutako informazioa aldatuko da. Xehetasun gehiago eskuliburu honetako [faktura zuzentzaile berria](#) atalean. Aukera hori aktibatzen baduzu eta faktura zuzendu edo ordezkatu dagokien informazioa idatzi eta gero desaktibatzen baduzu, mezu bat agertuko zaizu, ohartarazteko sartutako faktura zuzenduak ezabatuko direla.

Faktura mota	▲
<input checked="" type="radio"/> Osoa <input type="radio"/> Erraztua	
<input type="checkbox"/> Faktura zuzentzailea bada, markatu	

9.2 Jaulkitzailea

Atal honetan, fakturaren jaulkitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena bistaritzen dira. Datu horiek aplikazioan sartu den pertsonaren eta [Jaulkitzailearen datuak](#) atala beteta egotearen edo ez egotearen arabera dira.

[Jaulkitzailearen datuak](#) atala beteta ez badago, jaulkitzailearen helbidea eta posta kodea idatzi behar dira gutxienez, eskatzen denaren arabera.

Beteta badago, atal honetan, jaulkitzailearen helbidearen datuak alda daitezke, eta aldaketa horiek uneko fakturari bakarrik eragingo diote.

Jaulkitzailea ^

Jaulkitzailearen helbidea

Helbidea *

Samaniego 14

Posta kodea * Udalerria Probintzia - lurralde historikoa

01001 Vitoria-Gasteiz Araba/Álava

Faktura sortzen ari den jaulkitzailearen IFZ eta izen-abizenak edo sozietatearen izena automatikoki kargatzen dira eta ezin dira aldatu.

Helbidea, posta kodea, udalerria eta probintzia, aldiz, aldatu egin daitezke, eta aldaketa horiek uneko fakturari bakarrik eragingo diote.

Kontsumo estatuko IFZ

Beste IFZ bat sar daiteke, eta fakturaren PDFan soilik bistaratuko da. Horretarako, *Kontsumo estatuko IFZ* aukera markatu behar da. Fakturaren PDFan bakarrik agertuko den atzerriko helbide baten berri eman daiteke.



Kontsumo estatuko IFZ *



9.3 Bezeroa/Hartzailea

Atal honetan fakturaren bezeroari buruzko datuak bete behar dituzu. Horretarako, menu zabalgarrian fakturaren bezeroa hautatu behar duzu, [bezeroen kudeaketan](#) alta emanda daudenen artean.

Bezeroa ^

Bezeroa * ▼ + Bezero berria

Bezero jakin bat errazago aurkitzeko, eremuaren gainean idatz dezakezu, eta emaitzak automatikoki iragaziko dira. Identifikazio zenbakia nahiz izen-abizenak edo sozietatearen izena idatz ditzakezu bilaketa egiteko.

Bezeroa ^

Bezeroa *
x × + Bezero berria

1111111H - x x, x

Bezeroa hautatu ondoren, datuak automatikoki kargatuko dira

Bezeroa ^

Bezeroa *
22222223Z - Ruiz López, Antonio × + Bezero berria 🗑️ Bezeroa ezabatu

Bezeroaren datuak

Identifikazio mota *
IFZ ▾ Zenbakia *
2222223Z

Izena *
Antonio

Lehenengo abizena *
Ruiz

Bigarren abizena
López

Helbidea *
Samaniego 14

Posta kodea *
01001

Udalerría
Vitoria-Gasteiz

Probintzia
Araba/Álava

Bezeroaren datuak aldatu egin daitezke, identifikazio mota eta zenbakia izan ezik, eta aldaketa horiek uneko fakturari bakarrik eragingo diote.

Faktura osoetan, nahitaezkoa da bezero bat adieraztea. Faktura erraztuetan aukerakoa da.

+ Bezero berria

[Bezero berria](#) botoiaren bidez, bezeroei alta emateko atalera sar zaitezke, beste bat sortzeko. Dagozkion datuak bete eta bezeroari alta eman ondoren, fakturaren altara itzuliko da aplikazioa, eta alta eman berri diozun bezeroaren datuak agertuko dira *Bezeroak* atalean.

9.4 Fakturaren goiburua

Fakturaren goiburua ^

Jaulkitze data 📅 ? Saila ▾ + Sail berria

Faktura zenbakia ? Faktura erraztua ordeztuko jaulkitako faktura

Hau da osatu beharreko informazioa:

- **Jaulkitze data:** Eremu hau fakturaren jaulkitze edo emate datari dagokio, eta erabiltzaileak ezin du editatu, automatikoki betetzen baitu aplikazioak faktura elektronikoki sinatzen den eguneko dataekin.
- **Saila:** Eremu honek fakturaren saila identifikatzen du. Erabiltzaileak sail bati baino gehiagori eman badio alta (ikus [Sailen kudeaketa](#) atala), zerrendako sail bat hautatu behar da. Aukera ematen du eremuan idatziz sailak iragazteko. Erregistratutako fakturek DFA_ saila daramate, berriaz beste sail bat adierazi ezean

+ Sail berria

[Saila eremuaren](#) ondoan *Sail berria* botoia dago, eta bertan sakatuz alta eman diezaiokezu sail berri bati faktura honetarako, sailen kudeaketaren atalean eskatzen denaren arabera.

- **Faktura zenbakia:** Erabiltzaileak ezin du eremu hau editatu, automatikoki betetzen baitu aplikazioak faktura elektronikoki sinatzen denean.
- **Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura:** Aurretik jaulkitako faktura erraztu baten edo batzuen ordez faktura oso bat jaulkitzen denean soilik bistaratzen da marka hau. Hasiera batean, aukera desgaituta egongo da. Eremu honen gainean sakatuz gero, taula bat eta formulario bat agertuko dira. Bertan gehitu behar dituzu jaulkiko duzun faktura osoarekin ordeztu beharreko fakturak.

Fakturaren goiburua

Jaulkitze data	Saila	+ Sail berria
Faktura zenbakia	<input checked="" type="checkbox"/> Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura	
Faktura zuzenduak edo ordezkatuak		
Fakturaren saila	Faktura zenbakia *	Jaulkitze data * <input type="button" value="+ GEHITU"/>

Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura eremua markatzen baduzu, honako eremu hauek ere bete beharko dituzu:

- **Fakturaren saila** (aukerakoa): Ordeztu nahi duzun fakturaren saila. Eremuaren gehieneko tamaina 20 karaktere dira.
- **Faktura zenbakia** (nahitaezkoa): Ordeztu nahi duzun fakturaren zenbakia. Eremuaren gehieneko tamaina 20 karaktere dira.
- **Jaulkitze data** (nahitaezkoa): Ordeztu nahi duzun fakturaren jaulkitze data. Data ezin da egungo data baino geroagokoa izan.




 **GEHITU**


Eremu guztiak bete ondoren, *Gehitu* botoiaren gainean sakatu behar duzu.

Eremu horiek betetzean akatsen bat eginez gero, formularioak horren berri emango dizu.



Dena zuzen badago, erregistro taulara gehituko du informazioa.



Fakturaren goiburua

Jaulkitze data  Saila   + Sail berria

Faktura zenbakia  Faktura erraztua ordezeko jaulkitako faktura

Faktura zuzenduak edo ordezkatuak

Fakturaren saila Faktura zenbakia * Jaulkitze data *   + GEHITU

FAKTURAREN SAILA	FAKTURA ZENBAKIA	JAILKITZE DATA	
DFA_2022	3	2022/04/27	 




1-1(c)tik |< < > >|



Gehitutako fakturan honako hauek egin ditzakezu:



Erregistroa editatzeko, ikono honen gainean sakatu behar duzu erregistroan. Hori eginda, datuak kargatuko dira formularioan:

Faktura zuzenduak edo ordezkatuak

Fakturaren seriea Faktura zenbakia * Jaulkitze data *   GORDE  UTZI

FAKTURAREN SERIEA	FAKTURA ZENBAKIA	JAILKITZE DATA	
DFA_2022	3	2022/03/21	 

1-1(c)tik |< < > >|

Fakturaren eremuetan aldaketak egin ditzakezu eta egindako aldaketak gorde (*Gorde* botoiaren gainean sakatuz) edo bertan behera utzi (*Utzi* botoiaren gainean sakatuz).




Erregistroa ezabatzeko, ikono honen gainean sakatu behar duzu ezabatu nahi duzun erregistroan. Ekintza baieztatzeko mezu bat agertuko da. Onartuz gero, erregistroa ezabatu egingo da; ezeztatuz gero, ez da ezabatuko.

9.5 Fakturaren datuak

Atal honetan eta hurrengoan fakturaren atal nagusia dago. Laburbilduz, atal honetan hauek agertzen dira: fakturaren edukiaren deskribapen orokorra (*Eragiketaren deskribapena*), eragiketan aplikatutako BEZaren araubidearen gakoa (datu hori beharrezkoa da TicketBAI fitxategirako, baina EZ da pdf fakturan agertuko) eta [xehetasun lerroak](#).

Fakturaren datuak ^

Eragiketaren deskribapena * [679/2016 Araubidearen 9. artikulua babestutako informazioa](#) ?

Eragiketaren data  **BEZaren araubidearen gakoa *** ?
01 - Erregimen orokorreko eragiketa eta hurrengo balioetan jaso gabe dagoen beste edozein kasu ▼

- **Eragiketaren deskribapena** (nahitaezkoa): Fakturatzen den eragiketaren deskribapen orokorra. Eremuaren gehieneko tamaina 250 karaktere dira.
- **Eragiketaren data**: Fakturatzen diren eragiketak egin diren eguna fakturaren jaulkitze dataren berdina ez bada soilik bete behar duzu eremu hau. Data bat badatoz, ez duzu eremua bete behar, eta automatikoki kopiatuko da jaulkitze data.
- **BEZaren araubidearen gakoa** (nahitaezkoa): Eremu honetan fakturatzen diren eragiketei aplikatutako BEZaren araubidearen gakoa agertzen da. Hasiera batean, *01-Erregimen orokorreko eragiketa* gakoa egongo da aukeratuta, gako hori aplikatzen baitzaie zergadun eta eragiketa gehienei. Hala ere, egoera jakinetan, beste gako bat aukera dezakezu, kasu kasuan dagokiona. Gako hori TicketBAI fitxategiak sortzeko baino ez da behar, eta EZ da pdf fakturan agertuko.

Behin xehetasun lerro bat gehituta, EZIN da gakoa aldatu.

9.6 Xehetasun lerroak

Atal honetan fakturatutako kontzeptuak (bat edo gehiago) agertuko dira, eta BEZaren ondorioetarako zer tratamendu duten adierazi beharko duzu. Eragiketak zergapekoak eta salbuetsi gabeak izan daitezke (subjektu pasiboaren alderantzizkatzearekin edo gabe), zergapekoak eta salbuetsiak, edo ez-zergapekoak.

Xehetasun lerroak

Deskribapena * 679/2016 Araubidearen 9. artikuluko babestutako informazioa [Ⓢ]

Kopurua * Unitateko zenbatekoa * Deskontua (%) Deskontua (€) BEZik gabeko guztizkoa

Zergapekoa/salbuetsi gabea Zergapekoa/salbuetsia Ez-zergapekoa

Subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe Subjektu pasiboaren alderantzizkatzearekin

Zerga oinarria * Zerga tasa * Zergaren kuota *

Baliokidetasun errekaragararen tasa Errekargararen kuota Zenbatokoa, guztira *

Honako eremu hauek bete behar dituzu xehetasun lerro bakoitzean:

- **Deskribapena** (nahitaezkoa): Fakturatutako kontzeptuaren deskribapena. Eremuaren gehieneko tamaina 250 karaktere dira. Nahitaezkoa da. Deskribapen hori 697/2016 Erregelamenduaren 9. artikuluko babestutako informazioa dela adierazteko aukera duzu. Hala eginez gero, deskribapena sortutako fakturan bistaratuko da, baina ez da AFARA bidaliko.
- **Kopurua** (nahitaezkoa): Fakturatutako kontzeptuaren unitate kopurua. Zenbaki bat izan behar da, eta 12 zenbaki oso eta 2 hamartar izan ditzake. Nahitaezkoa da.
- **Unitateko zenbatekoa** (nahitaezkoa): Fakturatutako kontzeptuaren unitateko zenbatekoa. Zenbaki bat izan behar da, eta 12 zenbaki oso eta 8 hamartar izan ditzake.
- **Deskontua (%)** (aukerakoa): BEZik gabeko zenbatekoari aplikatu beharreko deskontua ehunekotan (kopurua * unitateko prezioa). Zenbaki bat izan behar da, eta ezin da % 100etik gorakoa izan.
- **Deskontua (€)** (aukerakoa): Fakturatutako kontzeptuaren deskontua. Aurreko eremuan ehuneko bat jarri baduzu, eremu hau automatikoki kalkulatu da eta ezingo duzu editatu. Bestela, zuk idatzi ahal izango duzu. Zenbaki bat izan behar da, eta 12 zenbaki oso eta 2 hamartar izan ditzake.

- **Guztira, BEZik gabe:** Fakturatutako kontzeptuaren guztizko zenbatekoa, BEZik gabe. Eremua ezin da editatu, automatikoki kalkulatzen duelako aplikazioak sartutako gainerako datuetan oinarrituta: $((\text{kopurua} * \text{unitateko prezioa}) - \text{deskontua})$.

Datu horiek betetakoan, fakturatu beharreko kontzeptuari BEZaren ondorioetarako zer tratamendu dagokion hautatu behar duzu. Hurrengo ataletan zein mota dauden zehazten da.

+ GEHTU

OHARRA: Fakturan xehetasun lerroa sartzeko, Gehitu botoiaren gainean sakatu behar duzu. Botoia sakatu ezean, xehetasun lerroa EZ zaio fakturari gehituko.

9.6.1 Zergapekoa/salbuetsi gabea – Subjektu pasiboaren alderantzikatzerik ez

Hasiera batean aukera hau egongo da markatuta. BEZari atxikita eta zerga ordaintzetik salbuetsita ez dauden eragiketei dagokie.

Xehetasun lerroak

Deskribapena * 679/2016 Araubidearen 9. artikuluko babestutako informazioa

Kopurua * Unitateko zenbatekoa * Deskontua (%) Deskontua (€) BEZik gabeko guztizkoa

Zergapekoa/salbuetsi gabea
 Zergapekoa/salbuetsia
 Ez-zergapekoa

Subjektu pasiboaren alderantzikatzerik gabe
 Subjektu pasiboaren alderantzikatzearekin

Zerga oinarria * Zerga tasa * Zergaren kuota *

Baliokidetasun errekarquaren tasa Errekarquaren kuota Zenbatekoa, guztira *

Honako eremu hauek bete behar dituzu (horietako batzuk automatikoki kalkulatzen ditu aplikazioak):

- **Zerga oinarria:** Zerga oinarria automatikoki kalkulatzen du aplikazioak $((\text{kopurua} * \text{zenbatekoa}) - \text{deskontua})$. Ezin da editatu, BEZaren araubidearen gakoren bat izan ezik.
- **Zerga tasa** (nahitaezkoa): Xehetasun lerroaren zerga tasa menu zabalgarriko aukeren artean hautatu behar duzu.
- **Zergaren kuota:** Zergaren kuota automatikoki kalkulatzen du aplikazioak $((\text{zerga tasa} / 100) * \text{zerga oinarria})$. Ezin da editatu.

- **Baliokidetasun errekarquaren tasa:** Xehetasun lerroaren baliokidetasun errekarquaren tasa menu zabalgarriko aukeren artean hautatu behar duzu. Aplikatu beharreko ehunekoa bakarrik hauta dezakezu, aukeratutako zerga tasaren arabera. Ez da nahitaezkoa.
- **Errekarquaren kuota:** Baliokidetasun errekarquaren kuota automatikoki kalkulatzen du aplikazioak ((baliokidetasun errekarquaren tasa / 100) * zerga oinarria). Ezin da editatu.
- **Zenbatekoa, guztira:** Automatikoki kalkulatzen du aplikazioak (zerga oinarria + zergaren kuota + baliokidetasun errekarquaren kuota). Ezin da editatu.
